

## ANTZERKIA

- **BILBO**  
'La abuela echa humo' lana antzeztuko du Rafaela Apariciok, beste batzuren artean. Mikeldi antzokian 20.00 eta 23.00etan.
  - 'Entre risas anda el juego' lana antzeztuko du Juanito Navarrok, beste batzuren batera. Ayala antzokian 20.30 eta 23.30etan.
  - 'Entre bobos anda el juego' lana antzeztuko dute Aitana Sanchez eta Fernando Guillen Cuervok. Gran Vía antzokian 20.30 eta 23.30etan.
  - 'Sabor a miel' lana antzeztuko dute Beatriz Carvajal, Paula Sebastian eta Tomas Gayok. Vistarama antzokian 20.30 eta 23.30etan.
  - 'Rosas de Otoño' lana antzeztuko dute Amparo Rivelles eta Alberto Closasek. Coliseo Albia antzokian 20.30etan.
  - 'Una pareja singular' lana antzeztuko dute, Amparao Larrañaga eta Iñeki Miramonek. Astoria antzokian 20.30 eta 23.30etan.
  - 'Matrimonio para tres' lana ikusteko aukera dugu, Ana Maria Vidal eta Pedro Fiveraren eskutik. Consulado antzokian 20.30 eta 23.30etan.
- Markelñe taldea. Plaza Berrian gaueko hamabietan.

- **DONOSTIA**  
'Demasiado para una noche' lana antzeztuko du Pedro Osinagaren konpainiak. Antzoki Zaharrean 20.00 eta 23.30etan.
- **ZUMAIA**  
Kale antzerkia. Erribera kalean arratsaldeko 8etatik aurrera.

**ERAKUSKETAK**



**DONOSTIA**  
Valdès Leal  
Pinturak

## ERAKUSKETAK

- **AZPEITIA**  
San Agustín Eliza. Hausnarketa Barrokoak. Jesus M<sup>o</sup> Corman eta Koldobika Jauregi. Urriara arte.
- **BILBO**  
Arte Ederretako Museoa. Hernandez Pijuanen obra grafikoa. Abuztuaren 31a arte. Horezaz gain, Adolf Loos-en lanak. Irailaren 30a arte.
- BBK-ko kultur aretoa (Elkano). Bilboko jaietako kartelak. Abuztuaren 25a arte.
- **DONOSTIA**  
Kutxako aretoa (Garibai). Valdès Leal-en pinturak. Iraila arte.
- San Telmo museoa. Dinosauriak. Iraila arte.
- **HONDARRIBIA**  
Aireportuko erakusgela. Pilar Saratxoren lanak. Abuztuaren 24a arte.
- **IRUN**  
Amaia Aretoa. Bienabe Artia pintorearen erakusgela antologikoa. Azken eguna.
- **ZARAUZ**  
Torre Luzea. Carazoren akua-

**ANTZERKIA**



**ZUMAIA**  
Kale antzerkia  
20.00

relax. Azken eguna.  
Sanz Enea. Jose Antonio Legorburu, Iñigo Ormazabal eta Daniel Txopiteak eginiko olioak. Azken eguna.


## IHARDUNALDIK

- **DONOSTIA**  
Pepe Albaceteren Serigrafia tailerra. Iraupena: Irailaren 2tik urriaren 31a arte. Inskripzio eguna abuztuaren 21ean amaituko da. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Artelekura jo edo 47 00 21 / 45 36 62 telefono zenbakira deitu.
- Juan Carlos Savaterren Pintura tailerra. Iraupena: Urriaren 1etik 31a arte. Inskripzio eguna irailaren 20a arte. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero Artelekura jo.
- Esperientzia modernoari buruzko mintegia. Iraupena: Irailaren 25etik 27ra. Inskripzio epea: Irailak 19. Informazio gehiago Artelekun.

- **OLABERRIA**  
Txertaketa Ikastaroa. Abuztuaren 26, 27 eta 28an izango da baserriarren lokalean, 18.30etik 21.00etara. Irailaren 2an Zubietako finkara bisitaldi bat egingo da. Goierriko Mendi Nekazaritza Elkarrekin antolatuta. Informazio gehiago Ordiziako telefono zenbaki hauetan: 88 86 77 eta 88 17 93.

## LEHIAKETAK

- **BILBO**  
Aste Nagusia Nazioarteko I Mural Txapelketa. Gaia: 500 urte kolonizatuta. Askapenak antolatuta. Sarien banatzea abuztuaren 21ean izango da, Askapenaren txozna inguruan arratsaldeko 4etatik 8etara.
- **DEBA**  
Tene Mujika Lehiaketa. Euskarazko narrazioak. Gaia librea izango da. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 29a. Lekua: Debako Udaletxea. Informazio gehiago bertan.
- **DONOSTIA**  
Bilintx VI Haur eta Gazte Literatur Saria. Bi sail egongo dira, OHO eta BBBko ikasleentzat alegia. Lehiakide bakoitzak nahi bainan lan aurkez ditzake. Narrazio, ipuin luze edo nobela. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean, eguerdiko hamabietan amaituko da. Helbide honetara bidali behar dira: Bilintx Liburudenda. Fermin Calbeton Kalea. 20003 Donostia. Informazio gehiago liburudenda edo bi telefono zenbaki hauetan: 42 02 24 edo 42 09 30.
- **EIBAR**  
Indalecio Ojanguren IV Argazki Lehiaketa. Lehiaketa horretan parte hartzea nahi duenak Eibarreko Udala Kultur ba-



**HARITZ Lopategi, Ireneo**  
Ajuria, Xabier Arriaga 'Txiplas' eta Jon Enbeita bertsolariak Bilboko jaietako

lehenengo bertso saioa eskainiko dute. Jaialdia Santiago plazan izango da 13.00etan.

tzordera jo dezala. Lanak aurkezteko epea, urriaren 25ean amaituko da.

- **EUSKAL HERRIA**  
Euskaltzaindiak Elizanbururen ohoretan bi sari antolatuta ditu. Lanak aurkezteko epea: urriak 31.

Euskal Herriko Literatur Sariak. Euskal Literatura eta liburuaren 'Euskadi' sariak eta gaztelaraz idatzitako lanak argitaratuz, literatur eta zientzia alorreko sorkuntza-lanentzako laguntzak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailak antolatuta. Lanak, Kultura Lurralde Ordezkaritzaren bidez aurkeztu beharko dituzte, irailaren 15a baino lehen, hiru aldakitan, orri zenbakituetan eta gutunazal itxiaren kanpalkidean lema jarritz.

Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Euskadi Sariak. Argazkigintza, Prentsa, Irratia, Ikusentzuteko Bideak, Ikerketa eta Institutuzio-lana espezialitateak daude. Lanak eta kandidaturak helbide honetara bidali behar dira: Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Gizarte-Ongizaterako Zuzendaritza, Wellington Dukearen Kalea 2, 01011 Gasteiz. Lanak aurkezteko epea urriaren 31an, eguerdiko 12etan bukatuko da.

- **GASTEIZ**  
'Baporea' Haur Liburu IV Lehiaketarako epea zabalik dago azaroaren 15a arte. Idazlanak euskaraz izan behar dute, gaia librea izanez, baina narrazio edo elaberriaren barruan jeneroei dagokionez. Lehenengo sariak milioi bat pezetako (50.000 libera) kopurua du dirutan eta Santa Maria Fundazioak argitaratuko du. Bigarren sariak, argitalpenaz gain, 200.000 pezetako hartuko ditu.

Argibideak izateko nahiz idazlanak bidaltzeko Santa Maria Fundaziora jo behar da, Txako auzoan 3, 48480 Arrigorriaga.

- **GETXO**  
'Getxo Festatan' II Argazki Lehiaketa. Gaia Getxoko festak izango da. Argazkiak zuri beltzez edo kolorezkoak izan daitezke. Lanak Getxoko Kultur Aretora bidali behar dira, urriaren 5a baino lehen. Informazio gehiago Kultur etxean bertan edo telefono zenbaki hauetan: 469 93 23 / 460 05 21 / 469 96 04.

- **IRUÑEA**  
Literatur Lehiaketa euskaraz Iruñeko udalak antolatutak. Iruñeko Udaletxean aurkeztu behar dira lanok urriaren 27a baino lehen. Informazio gehiago nahi duenak, 10 01 50 / 10 01 51 edo udaletxera jo dezala. Sanferminei buruzko diapositiba eta argazki lehiaketa. Aurkezteko epea: Azaroak 30a. Lekua: Iruñeko Udaletxean. Sanferminei buruzko kazetaritza lehiaketa. Lanak Iruñeko Udaletxean aurkeztu behar dira Azaroak 30a baino lehen.

- **NAFARROA**  
Komiki Lehiaketa. Hamabost eta hogeitabost urte bitarteko gazte nafarek hartu dezakete parte. Lanak euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke, eta bakoitzak hiru gehienez, Lanak aurkezteko epea irailaren 14an amaituko da. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Departamentuak antolatuta. Lanak helbide honetara bidali behar dira: Kirol eta Gazte Zerbitzua. Arrieta 25. 31.002 Iruñea.

- **URRETU**  
Euskal Jaia Iragartzeko Kartel Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea irailaren 26an amaituko

da. Informazio gehiago Kultur Etxean edo telefono zenbaki honetan: 72 41 70.

- **ZORNOTZA**  
Santiago Onandia Ikerketa Beka. Bi urtetakoa izango da. Beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea urriaren 16an amaituko da. Udaleko Bulegoetan aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi duenak udalako bulegoetara jo dezala.

**MUSIKA**



**TUTERA**  
Ebro Big Band  
20.00

## MUSIKA

- **ARRANKUDIAGA**  
Los Cinco Bilbainos. Herriko plazan 18.30etan.
- **BILBO**  
Malevaje. Gas enparantzan 00.00etan.  
Gran Gala orkestra, Paco Famoso eta bere Mariachiak. Arriaga plazan 00.00etan. Akelarre. Arenalean 23.00etan.
- **GERNIKA**  
Oskorri. Seber Altube auditoioan 21.00etan.
- **LEMOIZ**  
Los Cinco Bilbainos. Urizar auzoko frontoian 22.30etan.

- **TUTERA**  
Ebro Big Band. Castel Ruiz Kultur Aretuan 22.00etan.

## DANTZA

- **BILBO**  
Indarra taldea. Pergolan 12.00etan.  
Ballet Cubarra. Pergolan gaueko hamabietan.
- **IRUÑEA**  
Alwin Nikolais eta Murray Louis-en Balleta. Gaiarre antzokian 20.00etan.
- **MUNDAKA**  
Nazioarteko folklore jaialdia. Italia eta Canarietako taldeak arituko dira, enparantzan 20.00etan.

**BERTSOLARITZA**



**ALBISTUR**  
Bertso saioa  
Egun osoz

## BERTSOLARITZA

- **ALBISTUR**  
Anjel Mari Peñagarikano eta Millan Telleria. Egun osoz.
- **ARANTZA**  
Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso. Egun osoz.
- **BERGARA**  
Mañukorta eta Jon Lopategi. Egun osoz Osintxu auzoan.
- **BILBO**  
Ireneo Ajuria, Xabier Arriaga 'Txiplas', Jon Enbeita eta Haritz Lopategi. Santiago plazan 13.00etan.

## BESTELAKOAK

- **HONDARRIBIA**  
Dantza ikastaroa. Bi txanda izango dira: abuztuaren 5etik 16ra, eta 19tik 30era. Ikastaroa Zaindua Gaztetxean izango da. Izen emateko telefono honetara deitu: 64 31 98.
- **LEKEITIO**  
Lekeitioko Liburu Azoka. Foru Enparantzan. Azken eguna.
- **LIZARTZA**  
Irrintzilarien Lizartzako VIII Txapelketa. Txapelketa hori irailaren 7an izango da, plazan. Nahi duenak har dezake parte, adinaren mugatarik gabe eta, izena emateko epea txapelketa izango den eguna arte izango da zabalik. Izen emateko edo informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Lizartzako udalaxerara jo edo 68 20 17 telefono zenbakira deitu.
- Bikote Dantzarien Lizartzako IX Txapelketa. Txapelketa hori irailaren 8an izango da, plazan 19.00etan. Izen emateko epea irailaren 6a arte izango da zabalik eta informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Lizartzako udalaxerara jo edo 68 20 17 telefono zenbakira deitu.
- **ZIZUR NAGUSIA**  
Dantza ikastaroa. Hilabete osoan, asteartero 19.30etan izango da, gaztetxean, Ortzadar taldearen eskutik.